

Philippe Oihanburu

1921ean, sortu da Okzitaniako Argelès-Gazost herrian, Philippe Doyhamboure jauna. Hiru hilabetetan, aita-amakin Uruguaiara bizitzera doa.

Jadanik ordukotz bihurria baita, ez da eskolan ibiltzen zortzi urte arte, baina etxean berean ikasten du, besteak beste, irakurtzen eta idazten.

1930ean, Doyhamboure familia Montevideotik Parisera dator, eta 1939an Miarritzen kokatzen da Euskal Herrian egoteko xedearekin.

Hogei urtetan, eta gurasoak ez baititu osoki euskaradunak, erabakitzen du lehen-lehenik euskararen ikastea.

Eta Philippe Doyhamboure OIHANBURU bilakatzen da.

Ba ote dira oihana eta arbola baino ederragorik Filipen irudikatzen?

Oihanean, maiz bilatzen ditugu bakardadea, isiltasuna, gogoetaren hazkurria ; oihana da ere askatasunaren edangia.

Han zut-zuta dauden arbolek, izan haritz, pago, haltz, gaztain edo berdin lizarrondo, orekaren sinboloa dakarte.

Eta oihanburua da, oihanaren ilunpetik jalgitzen den argiaren iturburua.

Arbolek hiru bizi-maila dituzte : lur barne-barneko erroak, enborra eta lehen aldaxkak, eta azkenean gailurra hunki nahian, burua argitara daramaten abar hosto lerdenak.

Erroak, enborra eta gailurra, horra Filipen zigilua.

Erroak. Filipek, zangoak arin bezain errotik lotuak ditu euskal lurrari. Errotik euskalduna da.

Berak erraten du Espainiako gerla denboran Iparraldera etorri errefuxiatuek eragin handia ukan dutela, euskara erakutsi baitiote, euskararen maitasuna partekatu... eta bere baitan, euskararen ildotik, abertzaletasuna finkatu, besteak beste, Telesforo de Monzon eta Manu de la Sota adiskide handiekin.

Geroztik, zenbat eta zenbat bide ez ditu urratu Filipek euskara joanago eta gehiago lantzeko, aztertzeko, komunikabideetan sartzeko, liburuak argitaratzeko, hala nola *Euskal deituren hiztegia*, eta gaur egun ere oraino jendeei irakasteko.

Erroek hazi dute Filipen enborra. Oroz gainera, enbor artistikoa. Euskal dantza eta kantua ezinago hobeki zerbitzatu ditu.

Luzeegi litzateke dena xehekatzea hemen, baina nola ez aipa Espainiako gerla denboran, hona etorri *Eresoinka* kantari, dantzari eta musikari talde famatuak Filipengan ukan duen eragina.

Don Segundo de Olaeta, Bizkaiko dantza maisuarekin euskal dantzak ikasi ondoren, Pariseko *Errepika* dantza taldeko irakaslea izan da, 1945tik goiti *Oldarra* baletaren zuzendari artistikoa bilakatzeko. Gero 30 urtez, *Etorki*, dantza eta abesbatza konpainia profesionala suharki kudeatu du, ahantzi gabe duela 30 urte zuzendu dituen *Oyhamburu* eta ondotik *Etorburu* abesbatzak.

Zenbat zorion, zenbat odol gaixto, zenbat gau eta egun, zenbat lagun min, zenbat oren euskararen eta euskal kulturaren harroinean! Horiek oro bere oroimenean dira, etxeko apaletan, logelako pareta gainetan, bere ametsetan eta betirako gure gogo-bihotzetan.

Enborretik jalgitzen dira hosto aldaxkak eta abarrak, sorkuntzarenak. Filipe Oihanburu sortzaile suharra izan da bere bizi artistikoan. Musikaria, dantzaria, koreografoa, koru zuzendaria, idazle eta pentsalaria, komunikazio gizona, nork atxik gu! Sorkuntzen artean, aipatzekoak dira « *Orhipean* », « *Txutxurru* », « *Sorgin gaua* » balletak edo oraino, « *4 gei 3=1* » ikuskizuna, Pablo de Sarasate biolin joilearen musikaz apaindurik.

Beti obratu du euskal dantzaren eta kantuen arraberritzeko lanetan.

Duela zenbait urte, ikusiko dugu Mizel Theret koreografoak hain ederki eta sentikortasunez kudeatu duen « *Oroitzen naiz* » sorkuntza, non Filpekin batera, Jean Nesprias eta Koldo Zabala elkarrekin oholta gainean diren, jendeei erakusteko beraien atzoko ibilbide artistikoak gaurkoa eta biharkoa etengabe argitzen dituela.

Aldikal, nahi ukan ditu uztartu ohizko euskal dantza eta dantza garaikidea. Badakit ez dela beti erraz izan, baina hautatu bidea segitu du. Betidanik nahi ukan du euskal kultura hupa dadin ahal bezain gora, joanago eta ederragoa izateko gisan. Gailurra hunki dezan.

Eta Filipek munduan gairik gailurra ediren du, nola euskal dantzariekin, hala musikari eta kantariekin.

Irakurtu dudana, gutienez 4 kontinente zeharkatu ditu, 31 erresuma eta 28 hiri nagusi, hala nola Parise, Amsterdam, Londres, Buenos-Aires, Mexico, Mosku, New-York, Québec, ahantzi gabe hain maite dituen Georgia eta Tbilissi hiria, han gozatu baititu fama handia duten polifonia eta dantzari paregabeen ikusgarriak.

Bai, Filipe Oihanburu egiazko euskal kulturaren enbaxadorea da, hainbat eta hainbat erresumetan, beti helburu berdina duelarik gogoan : Euskal Herriko altxor kulturalak ezagutaraztea munduan gaindi, bai eta ere besteen kulturak bereganatzea. Betidanik pentsatu du kulturek elkar hazten dutela bata bestearekin gurutzatuz eta uztartuz.

Urhentzeko, gehitu behar dut omoretsua bezain laketa dugun Filipe idazle joria dela, intelektual argia. Oroz gainera literatura, zinema eta geopolitikoaren azterketa gustukoak dituela, eta egundainokotik egundainokora ideia libertarioei fidela izan dela.

Aski da horretarako bere etxeko apalei begiratzea, mukuru liburuz estaliak!

Hitz batez, Filipe kuriosa da, ikusmin handikoa.

Ikas eta egin, egin eta ikas, hau izan liteke bere leloa.

100 urte bete ditu Filipe Oihanburuk.

Entzun dut memorien idazten hasia dela. Erran gabe doa, lan erraldoia! 100 urteak ez ote dira ugalketaren adierazpena, iraganaren eta biharkoaren pasabidea?

101garren urtean sartuko zara, ziklo berri batean, baina badakit beti ukanen dituzula, arbolaren antzera, erroak ama lurrean, hostoak airean eta gailurra gogoan.

Milesker bihotzez Filipe Oihanburu jauna, zu bezalako ereduak baitezpadakoak ditugu Euskal Herrian eta munduan.

Pantxo ETCHEGOIN
2021eko ekainaren 25ean